

X



ANE LABAKA MAYOZ
BERTSOLARIA

X Xua da. Xua Lasagabaster Uranga.
X Olatz da. Olatz Lasagabaster Anza. Amatox.

X Patxi da. Patxi Uranga Salbide. Aitatxo.
X Mari Karmen da. Mari Karmen Anza Suberbiola. Amona Mari Karmen.

X Usurbil da. Orio da. Zarautz da. Euskal Herria.

X Picassenteko espetxea da. Valentzia.

X 1.200 kilometro da. 600 kilometro joan. Eta beste 600 kilometro etorri.

Amona Mari Karmenek disperzioaren erruz guztira 280.000 kilometro egingo zituela kalkulatu zuen 2018rako: Avila, Madril, Alacant... Avila berriz eta azkenik, Valentzia.

Amona Mari Karmen indarra da. Sostengua. Zaintza. Eta antolakuntza. Antolatze beharra.

Asteartean 40 minutuko bisita eta ostiraletan beste 40 minutuko bat kanpotik doazenekin. Hilabete behin ordu eta erdiko bis familiarra eta hiru ordu eta erdiko elkarbizitza bisa. 80 minutu astero. Ordu eta erdi gehi hiru ordu eta erdi hilabete.

Bost minutuko zortzi dei astean. Deitza, Olatzi esan beharreko guztia zerrenda batean apuntatuta.

Xua "sorgin txiki ederra" da amona Mari Karmenen ahotan.
Jaio zenean pisu bat alokatu zuten Valentzian, espetxetik ateratakoan amonarekin egon eta egoera berrira ohitzen joan zedin

Xua "sorgin txiki ederra" da amona Mari Karmenen ahotan. Jaio zenean pisu bat alokatu zuten Valentzian, espetxetik ateratakoan amonarekin egon eta egoera berrira ohitzen joan zedin.

Xua motxila astun batek konkortutako bizkarra da. Lehen aldiz itsasoa ikusi duen haurraren ilusioa eta Gabonetan bere herriko Olentzero eta Mari Domingi ezagutu dituenarena.

Xuak ez du bere birramonak ezagutzeko aukerarik izan orain arte. Patxiren amonak eta Mari Karmenen amak ez zuten Xua ezagutzen.

Xua Olatzekin bizi da eta presondegi

berean dagoen aita noizbehinka ikusten du. Patxik jaio eta 22 egunera eza-gutu zuen alaba, artean Fontcalenteko espetxean zegoelako.

Olatz eta Xua gaixo egon izan direnetan, Patxik ez du beraiekin zuzenean hitz egiteko aukerarik izan eta Mari Karmeni egindako telefono deien bidez izan du beraien berri.

Olatz eta Patxi 2009ko ekainean espetxeratu zituzten eta hamabina urteko kondena daukate. Kondenaren hiru laurdenak beteta baldintzapeko askatasuna lortzeko eskubidea izan arren, salbuespeneko legedia aplikatzen zaie. Xuak hiru urte beteko ditu urtarrilaren 19an eta kartzelatik atera beharko du nahitaez. Usurbilera joango da amonarekin bizitzera.

Xua amatxorekin 24 orduz egotetik berarekin bisitetan soilik elkartzera igaroko da bat-batean.

Xuari ez zaio kotxean bidaiatzea gus-tatzen. Azken bidaiata batean 45 minutu igaro zituen gerrikoa askatzeko erregu-tuz, oihuka.

Zilbor-hesteak ezin dira horrela eten.

Xuak etxean behar du. Bere gurasoekin. ●



Beasaingo Ikastola
HERRI ONURAKO KOOPERATIBA



ATE IREKIAK

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Urtarrilak 27 16:00 euskaraz / **18:00** gazteleraz

DBH

Urtarrilak 29 17:00 euskaraz / **18:00** gazteleraz

+ Goierriko DBHrako ikasleentzat garraio-bekak





BERRITZAILEA. ELEANITZA. EUSKALDUNA ETA GERTU-GERTUKOIA

943 889 617 · www.beasaingoikastola.eus · beasain@ikastola.eus